I.- BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN JARDUERA PROGRAMAREN ILDOAK.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, bere mandatuaren hasieratik, Justizia Administrazioanerreforma sakon bat gauzatzeko beharrizanaz ohartu da, horrela Konstituzioak oinarrizko eskubide moduan azaltzen duen zaintza judicial eraginkorra gizarteari eskeintzeko gai izan dadin. Eta organo konstituzional hau ezin da albo batera gelditu.

Espainiar gizarteak konplexutasunean sakondu du eta horrek zerbitzu publikoak eskeintzeko orduan exijentzia maila handiagoa izatea dakar. Gizarte aurrerapena soilik seguritate judizialean oinarrituta eman daiteke. Honen ondorioz, azkenean Justiziaren erreforma orokor hori gauzatzeko Kontseiluak Gobernu eta Autonomia Erkidegoekin elkarrizketa bultzatzea ezin da gehiago atzeratu, Estatuko beste botereen eskumen eta ardurak guztiz errespetatu, populazioaren eta administratzen eta eskeintzen dutenen ez poztasuna argi ikusita.

Gure erakunde konpromezuak Botere Judizialaren gobernu organoak egitura gabezia guztiak antzematea eta egoera hobetzeko eta bere modernizaziorako proposamenak egitea exijitzen du. Honen ondorioz, Kontseiluak **lehentasunezkotzat jotzen dituen ondorengo gaiei** aurre egin behar diela kontsideratzen du:

1. **Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren berezko eskumenei dagokienez:**

1.1 **Epaile eta magistratuen hautaketa eta hobekuntza.** Gai honetan Karrera Judizialeko kideen heziketa eta hautaketa prozesuaren hobekuntzarako lan egiten da.

1.2 **Jarduera judizialaren optimizazioa.** Helburu hau lortzeko dagoeneko Ikuskaritza Zerbitzuaren lana arazoak antzematera eta irtenbideak proposatzera bideratuta dago, hauen antzematen goiztiarra eta eragindako organo judizialekiko berehalako jarduera bultzatuz. Lan hau eguneratutako estatistika fidagarri batean oinarritu behar da, datuak denbora errealean ematen dituena.

1.3. **Karrera Judizialaren Estatutua.** Lanpostuen betetzea eta hautazko izendapenak ahalik eta gardentasun eta objektibitate handienarekin gauzatzeko ahalegina egitea beharrezkoa da, baita ardurazko postuetan emakumezko eta gizonezkoen presentzia orekatua bultzatzea.

Epaile eta Magistratuen ardura handien eta zerbitzu sozialen egokitzapen programa bati ekin behar zaio, zeinak beste aspektuen artean, beharrezkoa den lana eta bizi pertsonalaren adiskidetzea, mediku seguruen eta ardura zibilaren estaldura zabala, lan arriskuen prebentzio sistema, jubilazioaren eta opor erregimenaren baldintzen hobetzea bezalako aspektu garrantzitsuak erregulatuko dituen.

1.4. **Gobernu organoen komunikazio mekanismoen bizkortze eta sustapena Kontseiluarekin.** Hau teknologia berrien erabileraren bidez.

2. **Legebiltzarrarekin, Justiziako Ministerioarekin eta Autonomia Erkidegoekin koordinatuta:**

2.1 **Bulego Judizial Berriaren Ezarpen orokorra beharrezkoak diren baliabide material eta giza baliabideekin lagunduta.** Kontseiluak Justizia Administrazioko baliabideen optimizazio eta antolaketa berri bat lortzea beharrezkoa dela kontsideratzen du, funtzionariok kudeaketa eta antolaketan hezituz, bitarteko espezializatuen poltsak osatuz, pizgarri profesionalak bultzatuz eta teknologia berrien ezarpen orokorrarekin programa informatikoekin, elkarren artean konektatuta daudenak eta bateragarriak direnak.

2.2 **Planta eta Mugape judizialaren berregituratzea.** Gaur egungo Planta eta Mugape judizialaren diseinua zaharkituta gelditu da. Organo judizialen arteko lan kargaren banaketa oso desorekatu da, honek hiritarrengan eta epaile eta magistratu berengan ondorio negatiboak eragiten dituelarik. XXI mendeko gizarte baten benetako beharrizanetara egokituta dagoen mapa judizial berri bat ezartzea beharrezkoa da.

2.3 **Prozedurazko lege erreformak.** Kontseiluak gaur egun indarrean dauden prozedurazko arauen egokitzapena Bulego Judizialaren esparru berriarekiko defendatzen du. Baita, prozedura judizialen arrazionalizazio eta bizkortzera bideratutako errefermak beharrezkotzat jotzen ditu, batez ere penalaren esparruan, baita gatazkak ebazteko formula berriak sortzera bideratutako lege erreformak ere.

2.4 **Autonomia Erkidegoekin harremanak sustatzea.** Kontseiluarentzat Autonomia Erkidegoekin harremanak indartzea lehentasunezko gai bat da, Justizia Administrazioaren hobetze eta erreforma paper garrantzitsu bat jokatzen dutela kontsideratzeagatik. Estatuaren lurralde antolaketari dagokion Modernizazio Planaren ardatzen zortzigarren puntuan ezarritakoaren garapena bultzatuko du, Justizia Administrazioa mapa autonomiko berrira egokitzeko helburuarekin, berezko hizkuntza ofizialak dituzten Autonomia Erkidegoetan hiritarren eskubide linguistikoak beti bermatuz.

3. **Gizarteari dagokionez: Hiritarrarekiko hurbila eta gardena den Justizia bat.**

Kontseiluak bi lan ildo dauzka:

3.1. **Hiritarren Arretarako Unitatearen sustapena:** Alde batetik, auzi judizialetan sartuta edo arduratuta dagoen edozein hiritarrekin lotura erreal eta praktikoa lortzeko bide moduan beraien iradokizun, kexa eta erreklamazioen tratamendua aipatu behar da, eta beste aldetik, Epaile, Fiskal, Idazkari, Auzitegiko Mediku eta funtzionarioak hiritarren arretarako tekniketan hezitzea indartuz.

3.2. **Bere komunikazio politikaren diseinu berri bat.** BJKN-ak igorritako Komunikazio ekintzak epaile eta magistratuek gauzatzen duten paper garrantzitsua azpimarratzean eta hiritarrei Justizia Administrazioaren errealitatea transmitizen oinarrituko da. Komunikazio politika aktibo bati ekiditea da kontua botere judiziala hiritarrentzat botere gardenago, hurbilago eta ulergarriago bat izatea lortzeko. Gai honetan gauzatutako ekintza guztiak beti ondorengo printzipioetan oinarrituko dira:

gardentasuna, egiazkotasuna, kalitatea, bizkortasuna eta publizitatea.

II.-KONTSEILUAREN JARDUERA BERE AGINTALDIAREN LEHENENGO URTEAN ZEHAR.

1.-Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren berezko eskumenei dagokienez

A) BATZORDE IRAUNKORRA

Batzorde Iraunkorrak, zeinak Kontseiluaren kudeaketa egunero eramaten duen, bere agintaldiaren lehenengo urtean 76 bilera gauzatu ditu eta **4.328** akordio ezarri ditu.

Akordio hauen gehiengoak, gainera zeinak **praktikoki beraien osotasunean guztien adostasunez ezarri diren, hauen %64ak** organo judizialen, zerbitzu batzordeen, izendapenen, promozioen, linzentzia eta baimenen eta ikuskaritza zerbitzuaren jardueren errefortzu neurrien gaiei erreferentzia egiten dio.

Gai hauetako batean, derrigorrezko lekualdatzea kategoria igotzeagatik, urte honetan gauzatu behar ziren lekualdatze lehiaketak gelditzeko irizpidea ezarri zen, botere judizialaren lege organikoaren erreformaren izapidetzea legebiltzarrean egin behar zela kontziente izanik, zeinak lekualdatze hauen ezabapena aurreikusten zuen eta azaroaren 5 egunera arte indarrean zegoena.

Aldi berean, karrera judizialaren estatutu eskubideen gaiari dagokionez (lizentzia eta baimenak), eta aurten egin diren eskaerei seguritate juridikoa emateko helburuarekin, egoera anitzak homogeneoki tratatzeko, batez ere eskumeneko gradu bat ahalbideratzen dutenak, sortzen diren salbuespenezko egoerak kontutan edukita, irizpideak homologatuz eta ezarriz joan dira.

Batzorde Iraunkorraren akordioen **%24ak** erakunde eta entitate ezberdinekin gauzatutako **hitzarmenei** eta hiritarrek, elkarteek eta beste erakunde publiko eta pribatuek plazaratutako kontuei erreferentzia egiten die.

Eta, azkenik, akordioen **%12ak** BJKN-aren edo epaitegi eta auzitegien barne gorbenuko organoen ebazpenen kontra ezarritako errekurtsoen inguruko gaiak tratatzen ditu.

Errekurtsoen gai honetan ere ebazpenen bizkortze eta normalizazioan esfortzu bat egin da, ebazpen proposamenen edukiari eta datu estatistikoei buruzko informazioari bideak ezarriz, txotengileen eta errekurtsoa ebaztera deitutako organoaren, Bilkura dena, ekimena zorrozki errespetatuz.

B) KALIFIKAZIO BATZORDEA

Kalifikazio Batzordea Bilkurari proposamenak egiteaz arduratzen den organoa da 1) izendapenen gaian, 2) koofizialak diren hizkuntzen ezagutzako meritu aitorpenean edo lanpostu hutsak betetzeko eskubide zibil berezi edo foralean, 3) kalifikazio epaitegien parte izateko magistratu eta epaileen hautaketan, eta 4) karrera judizialeko kideei sari edo domin proposamenak informatzea.

- Izendapenak

a) Kargu judizialenak

Eskumen izaerako izendapenei dagokienean, kargu judizialak betetzeko Araudi proiektu batean lanean ari gara, lerro hauek idaztean Bilkurara igortzeko puntuan dagoena.

Bitartean, bete behar den lanpostura aurkeztu direnen egokitasunaren inguruko Kalifikazio Batzordearen kideen ustea hobe eraikitzeko ekimena jaso dugu.

Ekimen hau aipatu den Batzordearen aurrean kargura aurkezten diren Magistratuek beraien kurrikulum-a azaltzeko eta dagokion kasuan, beraien eskaerekin batera aurkeztu zuten jarduera programa edo proiektua aurkezteko gonbidapenean oinarritzen da (bertan joan nahi duten Kontseiluko gainontzeko kideak agertzen ahal direlarik).

Pasatu den denboraldi guzti honetan, ekimen hau finkatu eta hobetu egin da eta horrela, Araudi proiektura barneratua izan da. Zehazki, BJKN-ren funtzionamenduaren lehenengo urte honetan, Batzordeak ondorengoa gauzatu du:

- **40 proposamen** gobernu eskumeneko edo gobernu eta jurisdikzio mistoko lanpostuak betetzeko (Entzutegi Nazionaleko Lehendakaritza, Justiziako Auzitegi Goreneko Lehendakaritzak, Auzi Gelako Lehendakaritzak eta Probintzietako Entzutegietako Lehendakaritzak)

- **9 proposamen** esklusiboki jurisdikzionalak diren eskumeneko lanpostuak betetzeko (Auzitegi Goreneko eta Justiziako Auzitegi Nagusietako Magistratuak).

b) Kargu teknikoenak BJKN-an

Kontseilu bereko pertsonalaren barne izendapenei dagokienean aurretik gauzatzen ez ziren aurkezpenak egitea ere orokortu dugu. Izendapen hauen proposamen zehatzak 17 dira.

c) Ordezko Magistratuak eta ordezko Epaileak.

BJKN-ko zein Justiziako Auzitegi Nagusietako Gobernu Auzi Geletako jarduera erraldoia eta konplexutasuna kontutan edukita (gutxi gorabehera 5.000 eskaera jasotzen dira), Karrera Judizialaren Araudiaren aldaketa gauzatu egin da, izendapen hauetan urteko luzapen bat emateko aukera barneratzeko helburuarekin, bi urteko gehienezko luzapen batekin eta Gobernu Auzi Gelen aurretiko egokitasun txosten batekin.

Ordezko Magistratuak eta ordezko Epaileak izendatzeko existitzen diren bi prozeduren artean (lehiaketa publikoa eta larraialdiko prozedura) 36 magistratu emeritu, 317 ordezko eta 1.279 ordezko epaile izendatu dira.

- Merituen aitorpena

Hizkuntza koofizialen edo zuzenbide zibil berezi edo foralaren ezagutzari dagokionez, lanpostu hutsak betetzeko lehentasunezko meritu bezala karrera judizialeko kideen 180 eskaera aztertu dira (41 hizkuntzaren ezagutzari buruzkoak eta 139 zuzenbide berezi edo foralaren ezagutzari buruzkoak) eta 35 eskaera Eskola Judizialaren ikasleenak.

- Sariak edo dominak karrera judizialeko kideei.

Urte batez gehiago “Rafael Martinez Emperador" saria deitu da eta Justiziako Ministerioari Peñafort-eko San Raimundo Gurutzearentzako dagokion proposamenak, hainbat Magistratu, aurkeztu dira.

C) DIZIPLINA BATZORDEA

Diziplina gaian gauzatu diren jarduera nagusiak ondorengo moduan xehatzen da:

2.364	Aurretiko informazioak
140	eginbide informatiboak
32	disziplina espedienteak

Zifra hauek Kontseiluak gai honetan gauzatu duen jarduera handia erakusten dute.

Irekitako espedienteei dagokienean, 15 kasutan berrespenik gabe artxibatuak izan dira eta gainontzeko 17tan ondorengoak ezarri dira, dagokionean Bilkurara aurkeztuko da proposamenarekin:

- 9 hutsegite oso larrigatik, 1 eta 18 hilabete bitarteko denboraldian la neta soldataren galarapena, derrigorrezko lekualdatzea edo isuna eragiten dutenak.
- 11 hutsegite larrigatik, isunekin zigortutakoa, 300 eurotik 6.000 euro bitartera.
- 2 ohar.

Denboraldi honetan Auzitegi Gorenaren Hirugarren Auzi Gelaren 220 epai gauzatu dira, Batzordea beraren jardueren aurka ezarritako auzi-administratibo errekurtsoekin

erlazionatuta daudenak, horietako 9 soilik balioztatuak izanik, honek gai honetan Diziplina Batzordearen jarduera balioztatzen duelarik.

D) IKUSKARITZA JUDIZIALA

Kontseiluaren disziplina jarduerarekin duen erlazioarengatik, hau askoz ere zabalagoa bada ere, Ikuskaritza Zerbitzuaren berregituratzeko eta berrantolatzeko egin den ahalegina aipatu nahi da hemen. Ondorengo neurriak azpimarratzen ditugu:

- Zerbitzuko Buruzagitza indartu eta Ikuskaritza Unitatearen osaketa eta zenbatekoak berrantolatu egin dira, bi irizpide kontutan edukita: antolaketa jurisdikzionala eta lurraldetasuna. Gainera, Autonomia Erkidego bakoitzeko lurralde koordinazio bat ezarri da eta beste bat jurisdikzio bakoitzeko.

- Txosten Sailaren eite berri bat aurreikusten da salaketa eta kexen ebazpena arintzeko eta informazio fluxua errezteko helburuarekin, hauek Ikuskaritza Unitateek izapidetu eta ebazten dituztelarik.

- Ikuskaritza Unitate berri bat sortu da ezartzen diren larrialdi planak jarraitzeko, Modernizazio eta Informatika Batzordearekin koordinazioa indartzeko.

- Lan arriskuen prebentzioko teknikari lanpostu bat sortzeko izapidetzeari hasiera eman zaio, zeinak gai honetan ikuskaritza jardueran lagunduko duen.

Ikuskaritza Zerbitzuak gauzatu behar duen bisita programari dagokionean, ikuskatu behar diren organoak aukeratzeko kontutan eduki den irizpidea aurkitzen diren egoera zehatza izan da, gehiegizko lan karga dutenei eta liskar denboraldi handienak dituztenei lehentasuna eman zaielarik.

Ikuskaritzak gauzatzeko Irizpide Gida berrikusten ari da, ikuskaritza jarduera homogeneo eta eraginkorragoa bihurtzeko helburuarekin.

Ikuskaritza eta Estatistika Sailaren artean taldeko lan bat garatzen ari da urrutiko ikuskaritzak egitea lortzeko, baliabide informatikoen bidez.

Ikuskaritzak gauzatu dituen ikerketa garrantzitsuenak alde batetik auzitegi eta epaitegiek jasan dezaketen lan karga neurtzean oinarritu dira. Gaur egun, proposatutako eredua berrikusten ari da.

Beste aldetik, jurisdikzio auzi administratibo eta sozialaren arazoaren inguruko ikerketa zehatzak gauzatu dira, baita epai betearazleen epaitegi penalak ere. Azkenik, lan arriskuen prebentzioaren inguruko ikerketa bat bukatu da bai Epaile eta Magistratuen jardueran sortzen dena bai Justizia Administrazioaren zerbitzuko pertsonalak bizitzen duena.

E) BERDINTASUN BATZORDEA

Karrera judizialean gizonezko eta emakumezkoen arteko Berdintasunaren gaian, jarduera azpimarragarrienak Kontseiluko Berdintasun Batzordeak bultzatuta garatu direnak izan dira, kontseilu hau lege mailarekin 3/2007 L.O.ren, gizonezko eta emakumezkoen arteko berdintasun eraginkorrerakoa, bidez sortua izan zen. Jarduera azpimagarri hauek ondorengoak dira:

- Kontseiluaren jardueran Berdintasun Kontseiluaren garrantzia ezartzea, bere jarduera bakoitzean generoko dimentsioaren barneratzea eraginkor eginez.
- Hizkuntza ez sexista erabiltzeko agiria onartzea, JAG-en lehendakaritzetan zabalduz eta Kontseiluaren Web-ean argitaratua.
- Karrera judizialaren araudi aldaketei eta beste jarduera judizialei buruzko generoko eraginen txostenen igorpena.
- Bizitza familiarra eta profesionala adiskidetzeko gaien bultzada eta jarraipena.
- Baimen eta lizentzien erregulazioaren inguruko legediaren bultzada; plazaren gordetzea hiru urtetan luzatzeko eta ahaide edo adin gutxiko seme-alaba zaintzeko lan utzialdia antzinatasuna zenbatzeko; derrigorrezko igoera ezabatzeko.
- Karrera Judizialaren maila ezberdinetan eta eskumeneko izendapenen politikan eta Karrera Judizialaren kudeaketa edo gobernu erantzukizunetan emakumezkoaren ordezkapenari buruzko datuen analisi eta jarraipena.
- Kontseiluko Aurrekontuetan dagokion generoko eraginen txostena barneratzeko aukeraren ikerketa.
- Berdintasunaren inguruko Ikastaroen jarraipen eta ikuskapena.
- Irakasle laguntzaileen datu base baten sorrera, ikastaroen txostengile edo zuzendari moduan emakumezkoen presentzia bultzatzeko.
- Generoko gaian eta Berdintasun Legearen edukiari buruz Kontseiluaren zerbitzura dagoen pertsonalari zuzendutako formazio proposamenak.
- Berdintasun gaian Web leku baten sorrera.

F) ESKOLA JUDIZIALA

Karrera Judizialeko kideen formazio eta hautaketaren inguruko organo eskumenen garapenean bere jarduera eta egitura hedatzen diren hiru arloak ondorengoak dira: hasierako formazioa, formazio jarraia eta hautaketa.

Hasierako formazioa

Aldi honetan karrera judizialeko 60 eta 61 promozioen formazio prozesua garatzen ari da.

- Berrikuntza moduan, aurreko irakaskuntza planarekin alderatuz, ingurugiroaren aurkako delituen, etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren eta kriminalistikaren izapidetzeari dagozkion edukiak indartu egin dira .

- Lehenengo aldiz praktiketan dauden epaileen aldian behingo jarraipen txostenak ezarri dira, beraien gidatutako praktiketan zehar daramaten garapenaren jarraipen zehatzago edukitzeko helburuarekin.

- Beste pedagogia tresna berri bat Eskola Judizialaren extranetean gidatutako praktiken foroaren sorrera izan da, parte hartzea derrigorra delarik. Bere oinarrizko helburua praktiketan dauden epaileen, tutoreen eta irakasleen artean gidatutako praktiken gauzatzean azaldu diren gai zibil eta penalen inguruan eztabaida sortzea da.

- Eskolako kanpo eta erakunde harremanen arloan Iberoamerikar Gela Programa eta Formazio Judizialerako Sare Europarraren jarduerak bultzatu eta indartu dira.

Formazio jarraia

- Etengabeko formazioaren kontzeptuak, ekintza orokor baten moduan ulertuta, formazioko gaian kontzeptu tradizionalekin apurtzen du, horregatik gaur egungo Kontseiluak bere edukitzatik Karrera Judizialaren formazio jarraiaren eredu berri bat sortzeko erronka planteatu zuen.

- Adibide moduan etika juridikoaren, argudiaketaren edo interpretazioaren arazoei eskeini zaien protagonismoa aipatzen ahal da, honekin batera berdintasunari eta sexu arrazoiengatik ez bereizkeriari buruzko eta generoko indarkeriari buruzko formazio zehatz bat emateko betebeharra dago, baita Komunitate Zuzenbidean eta hizkuntzetan distantziako formazioa ere.

- Formazio prozesu guztian goi mailako kalitatezko estandarren eskakizunean sakondu da, formazio eskeintza karrera judizialaren beharrizan errealetara egokituz.

- Zuzenbidearen munduko beste profesionalen (fiskaltza, abokatutza, unibertsitatea, notariotza, etab.) formazio planen barneratzea bultzatu da, beste profesional eta alor batzuen praktika eta ekarpen didaktikoarekin jarduera jurisdikzionalaren ezagutza aberasten dela ulertzen dugulako.

- Ponentziak eman eta zuzendu behar duena hautatzeko irizpide objektibo eta gardenak erabiltzea ere eutsi da, zorrozki irakaskuntzako profilari erantzunak diotenak, egokitasun edo kualifikazio profesionala izan daitezkeen bezala.

- Formazio jarduerekin ere bizitza pertsonala eta profesionalaren arteko adiskidetzea bermatu nahi da, ikastaroen egiteari eta berregiteari malgutasun handiagoa emanik.

Hautaketa

- Epaileen hautaketari dagokionean, Eskola Judizialean135 ikasle berriren barneratze prozesua amaitu da, 61.promozioari dagozkionak, eta Ikasketa Juridikoen Zentroan 74 ikasle berri, 49.promozioari dagozkionak.

- Aldi berean, Eskola Judizialaren 220 ikasle plaza betetzeko hautaketa prozesu berri bati hasiera eman zaio, ondoren Karrera Judiziala Epaile maila bidez sartzeko eta Ikasketa Juridikoen Zentroan 150 plaza, ondoren Karrera Fiskalean Abokatu Fiskal maila bidez sartzeko.

- Deialdi honen barnean, eta berrikuntza moduan, minusbaliotasuna (discapacidad) duten pertsonentzako txandaren osaketa berria azpimarratu behar da, eta ondorengo deialdian bigarren ariketa egiteko lekapen, ariketaren edo auzitegiaren batazbesteko nota gainditu duten pertsona horientzako.

- Eta magistratuen sustapen eta espezializazioaren gaiari dagokionean, merkataritzaren Epaitegietan proba espezializatuak jaulkitzeko prozedura garatu da.

G) IKERKETA ETA TXOSTENAK

Kontseiluari dagokio, bere Ikerketa eta Txostenen Batzordearen bidez, ekimenak idaztea eta araudi proposamenak egitea, Kontseilu Nagusiak egitea onartu dituenak, baita lege eta izaera orokorreko beste xedapenei buruz organo honek jaulki behar dituen txostenen prestaketa.

Batzorde honen eskumenak dira ere Kontseilu Nagusiak onartu behar dituen Araudi proiektu horiek egitea eta organo judizial edo gobernu organo eta beste botere edo erakundeek planteatutako kontsulten inguruko ikerketa juridiko guztiak egitea eta ondare arduraren erreklamazioetan Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txosteneko proposamenak egitea, Justiziaren Administrazioa funtzionamendu anormala izapidetuta.

Egindako txostenak:

6 Lege proiektu edo aurreproiektuei eta izaera orokorreko beste xedapenei buruzkoak (16 estatukoak eta 10 autonomia erkidegoetakoak).

5 organo judizial edo gobernu organo eta beste botere edo erakundeek planteatutako kontsultei buruzkoak; eta

98 Justiziaren Administrazio anormalagatik ondare arduradurarena (hauetako erdiak aldekoak izan dira).

Azpimarragarriak:

Lege aurreproiektuei buruzko txosten hauetako batzuk ondorengoak dira:

- Espainian atzerritarren eskubide eta askatasunei eta beraien integrazio sozialari buruzkoa.
- Kode Penalaren erreformari buruzkoa.
- Osasun sexual eta ugaltasunari eta haurdunaldiaren borondatezko eteteari buruzkoa.
- Bulego judizial berria ezartzeko prozedurazko legediaren erreformari buruzkoa.

Araudi Proiektuak:

- 1/2005 Araudiaren, irailaren 15koa, jarduera judizialen aspektu osagarriei buruzkoa, erreforma proiektua eta prozeduren kudeaketa sistemetan gaiak erregistratzeko arauei buruzko bideratze proiektua.
- 1/1995 Araudiaren, ekainaren 7koa, Karrera Judizialari buruzkoa, aldaketa baimen eta lizentziei dagokienean hauek beraien parekatze legalerako funtzionario publikoekin (2008ko abenduaren 23ko Akordioa, BJKN-ren Batzarrarena.
- 1/1995 Araudiaren, ekainaren 7koa, Karrera Judizialari buruzkoa, aldaketa derrigorrezko igoeraren erregulazioari dagokionean.
- Eskumeneko izendapenen lanpostuak betetzeari buruzko araudia.

H) NAZIOARTEKO HARREMANAK:

Kontseiluak, bere Batzorkide eta organo teknikoengatik ordezkatua, edo baita horretarako hautatutako epaile eta magistratuengatik, nazioarteko harremanetan jarduera sutsu bat gauzatu du, bai ordezkatuta dagoen erakundeetan bai parte hartzen duen lan taldeetan ere, zein aholkularitza, konbentzio, bilera, protokolo bisita eta izaera judizialeko beste bilkuretan.

Erakunde jarduera hauen artean Goi-Bilera Judizial Iberoamerikarrean Kontseiluaren parte hartzea azpimarratu behar da, zeinean behin betiko Idazkaritza jasotzen duen, eta honekin batera, baita Justizia Kontseiluen Europar Sarean parte hartzea, zeinean Kontseilu Betearazlearen parte garen baita Zuzendaritza Batzordearena eta lan talde ezberdinena ere.

Nazioarteko laguntza judizialari dagokionean, ondorengoa azpimarratu behar da:

- Batazbeste hilabetero 25 asistentzia ematea beste horren beste organo jurisdikzionaletan, zigor kontuak zibilen aurretik ezarriz;

- Europar Sare Judizialean, Merkataritzako Sare Europar eta Zibilean eta IberRed-en eginiko lana.

- ESAJU-k gauzatutako lanarekin jarraitzea, zeinaren fruitu azpimarragarria nazioarteko laguntza judizialaren laburpen elkareragilea ezarri eta gauzatzea izan den.

- Europar Batasunaren Zuzenbidean Adituak direnen Sare Espainiarra (EBZASE) martxan jartzea, epaile eta magistratuen beharrizanei laguntza teknikoa emateko esparru juridiko guzti honi dagokionean.

- Laguntzaren eraginkortasunaren ebaluaketa, zeinean hainbat hutsune zehatz antzeman diren, batez ere antolatutako krimena eta zuritzearentzako erreguzko mandatuen eraginkortasunari dagokionean.

- Instrukzioko epaileen lekualdatzea erreguzko mandatuak egiteko eta EUROJUST-en koordinazio bilerak egiteko.

2.- Justizia Administrazioaren erreforma garrantzitsuan elkarrekin jarduera koherente bat gauzatzeko Justizia Ministerioarekin eta Autonomia Erkidegoekin lan egiteko helburuari dagokionez:

A) MODERNIZAZIOA ETA INFORMATIKA:

- **Justizia modernizatzeko plana:**

- Kontseilu berriak Justizia hobetzeko onartutako Berehalako Ekintza Planaren ildo nagusietatik abiatuta gauzatu dena.

- Planaren neurrien garapena bertan parte hartzen duten eragile guztien artean eginiko lan batean: Ministerioa, Autonomia Erkidegoak, Kontseiluko gainontzeko organoak, Justiziako Auzitegi Gorenek eta Epaile Dekanoak.

- **Bulego judizial berria:**

- Bere ezarpenerako Ministerio eta Autonomia Erkidegoekin osatutako lan taldeen parte hartzea

- Prozedurazko Zerbitzuko Komun Orokorren Homogenizaziorako Araudia, zeintzuk erregistro eta banaketaren, komunikazio ekintzen eta laguntza judizialaren funtzioak dauzkaten.

- **Planta eta mugape judiziala:**

Gauzatutako lan eta ikerketak:

- Pertsonaren Gaitasunari eta Familiari buruzko kontuak ezagutzeko

epaitegien lurralde taldekatzea.

- Emakumezkoekiko indarkerian espezializatutako Penalaren Epaitegiak, etxeko indarkeria eta generoko indarkeriaren aurkako Ikuskaritzak bultzatuta.

- Lurralde Adskripzioko Epaileen (jueces de adscripción territorial) sorrerari buruzkoa, azkenik bulego judizial berria ezartzeko Lege osagarri berrian barneratutakoa.

- **Teknologia berrien erabilera (e-justizia):**

- Programa eta tresna informatikoen erabilera orokorra, Jarduera Judizialen Aspektu Osagarrien araudi erreforma baten bidez eta prozedurazko kudeaketa sistemetan kontuak erregistratzeko arauei buruzko Arau baten bidez.

- Justizia Administrazioaren esparruan Interoperabilitatea eta Seguritatearen Justizia Eskema ezartzeko Justizia Ministerioaren, Kontseiluaren eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren arteko elkarlanerako Hitzarmena, zeinera Autonomia Erkidegoak atxikitzen ahal diren.

- Puntu Neutro Judizialaren hobetzea, organo judizialei eskeintzen zaizkien zerbitzuen katalogoa handituz.

- Justiziaren Auzitegi Gorenen gobernu kudeaketa Sistemaren pixkanakako ezarpena, Gobernu Epaimahaien akordioak, bilerak eta espedienteak digitalki izapidetzeko.

- Justizia Ministerioa eta Autonomia Erkidegoekin elkarlanean, alerten barneratzean, generoko indarkerian eskumenak dituzten organoen sistema informatikoetan lan egin da, biktimen seguritatean eragin dezaketen prozedurazko egintzen inguruan.

- Estatistika judizialaren esparruan Estatistika Judizialaren Batzorde Nazionalean denbora errealean datuak eskaini eta homogenizatzeko estatistika tresnak hobetzeko lan egin da.

B) ORGANO JUDIZIALEN ERREFORTZU NEURRIAK:

***ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI JURISDIKZIOA**

Estatistika judizialaren datuek JAG-en Epaimahaien aurrean aurkeztutako errekurtso auzi administratiboen zenbatekoaren gorakada paregabea erakusten dute. Lan kargaren handitze honek jurisdikzio honetarako larrialdiko plan bat ezartzea bultzatu zuen, 50 magistratu baino gehiagoko errefortzu batean oinarritu zena.

Jurisdikzio honetako organoen buruekin bilera asko gauzatu dira hutsune edo anomalia antzemateko eta hauek zuzentzeko beharrezkoak diren antolaketa neurriak proposatzeko.

Bilera guzti hauetan ondorio multzo bat atera dira, Epaimahaien eskumenetan eta kudeaketan

"jardute egokiak"-en elkartrukera bideratuta daudenak, gaien erregistroarekin, kudeaketa sistemen hobekuntzarekin eta beste Administrazioekin, zentral edo autonomia erkidegokoetakoekin, kanpo lankidetzarekin erlazionatuta.

*antolaketa jurisdikzional soziala

Organo hauetan krisi ekonomiko eta finantza krisiak hainbat ondorio eragin ditu: gaien sarrera izugarri handitu da eta honek langileen eskubideen zaintza eraginkorrean ondorio negatiboak sortu ditu. Ondorio hauek, ahal den neurrian, txikitzeko helburuarekin eta egoera honek sortzen dituen edo sortzen ahal dituen arazoengatik, Kontseiluak jurisdikzional soziala indartzeko ez ohiko Plan edo neurri bat onartu du, bere ekintza ildo nagusiak ondorengoak direlarik:

- Gizarte Epaitegien (Juzgados de lo social) %57ri eragiten dio, 11 autonomia erkidegotakoak, hauen liskar handiena aurkitzen delarik.
- Errefortzua indartzeko ordezko 31 magistratu eta epaile izendapenarekin egingo da eta hauek zerbitzu komisioak edukiko dituzte funtzioak ordezkatu gabe.
- Errefortzu neurriak 6 hilabeteko iraupena edukiko du eta kasu batzuetan azaroaren 1an hasiko da eta beste batzuetan urtarrilaren 1an.
- Neurriaren objektua lan kanporatze prozeduretan epaiketak egitea eta behin betiko ebazpena ematea da eta aldi berean, lan kanporatzearekin eta langileen interesentzako beste gai lehenetsiekin erlazionatutako zenbatekoaren erreklamazioetara zabaltzen ahalko zen.

***MERKATARITZA ANTOLAKETA**

Aipatu den antolaketaketako eta merkataritza eskumenak dituzten lehenengo instantziako Epaitegietan merkataritza izaerako gaien barneratzearen hazkunde esponentzialak aipatu diren organoei laguntzeko plan zehatz bat gauzatzea eragin du, zeina zeharkako neurri multzo batengatik osatuta dagoen eta hauek aurkezten diren arazo eta egoera ezberdinetara egokituta daude. Puntu honetan ondorengoak azpimarratu behar dira:

- Merkataritza antolaketan eskumen esklusiboak eta baztertzaileak dituzten unitate judizial berrien sorrera: Merkataritzako Epaitegien osaketa eta hornidura, 2009ko urtarrilaren 1an guztira 40 izan arte eta urte honetan zehar beste 15 organo batu zaizkie, apilira eta uztaileko hilabeteen bitartean 9 unitate martxan jarriko direla aurreratuz existitzen diren beharrizanei erantzunez;

- Epaitegi bis-en osaketa, aurrez existitzen den unitate judiziala bikoiztuz, Epaile, Idazkari eta funtzionarioekin;

- Errefortzuko Epaileen izendapena, bai zerbitzuko komisioan funtzioen ordezkapenarekin edo ez, bai ordezkapen erregimenetik datozenak;

- Langile errefortzuen gaian eskumenak dituzten Administrazioei proposamenak egitea funtzionario berriak barneratzeko eta lan egunaren luzapenetarako.

- Merkataritzako Epaitegientzako zerbitzu komun orokorren ezarpena; eta,

- Izapidetze eta komunikazio egintzen protokoloen garapen eta diseinua.

Aipatu diren neurriek Merkataritzako Epaitegien %95ri eta banatutako eskumenak dituzten Epaitegien %50ri eragin zioten (144 neurri urte erdi baino denbora gutxiagoan), oso emaitza positiboa eduki du, beharrezkoak diren eta borondatezkoak diren lehiaketek lan zama izugarria suposatu badute ere, bere zenbatekoari zein bere garrantziari dagokionez eta ondorio laboral eta ekonomikoei dagokionez, zaintza judizial eraginkorra eskaini ahal izan da.

Zehazki aipatu den errefortzu plan bereziak bigarren plan bat gauzatzea eragin du, gaur egun ia bukatuta dagoena eta ziuraski datorren abenduko hilabetean onartuko da.

Aldi berean, bi ildoren bidez merkataritza antolaketaren berezitasuna bultzatu da:

- Plantaren osaketa egokia bermatu arte lanpostuen deialdia urtero egitea aurreikusten da; eta
- Bigarren instantziara iristeko azalpenetara daraman lege erreformen bultzada.

3.- Gizarteari dagokionean: Justizia garden bat eta hiritarrari hurbila dena.

1.- BITARTEKOTZA BARNE JUDIZIALA

Bitartekotza Barne Judizialaren Proiektua bere bi lan ildotan: Penal eta Zibil familiarra, dagoeneko aurreko agintaldian martxan jarri bazen ere, Kontseiluak onartutako Justiziaren Modernizazio Planean, bere etapa berrian, bitartekaritza zibil eta penalari erreferentzia zehatz bat barneratzen da, prozedura beraren barnean aurkitzen den arazoen ebazpenean tresna eraginkor bat balitz bezala. Planaren ildo zehatz hau prozeduren eta organoen erreforma multzo batean oinarritzen da, zeintzuk Kontseiluak bultzatzea proposatzen dituen Justiziari irtenbide arinagoak emateko.

Ezartzen ari diren neurrietako batzuk ondorengoak dira:

- Epaile eta Magistratuen Extranet-ean Bitartekaritza Zibil eta Penalari buruzko espazio baten sorrera, baita orokorrean publikoari irekitako Web-ean ere, zeinean eskuragarri dauden informazioa eta materialak, jardute protokoloak, bitartekaritza programan parte hartzen duten organo judizialak, deialdiak, seminario eta jardunaldien ondorioak, etab. aurkitzen diren.

- Organo judizial ezberdinengatik bitartekaritzara iristen ari diren gai zibil eta penalen informazioa jasotzeko sistema bat eta datu base bat martxan jartzea.

- Urte bukaeran espedienteen mugimenduaren panoramika orokor bat baldin badaukagu ere, baita hauek akordioarekin edo gabe bukatu diren, arau hauste mota eta prozeduraren iraupena jakingo da. **Une honetan bitartekaritza penalaren programara 133 epaitegi barneratuta daudela eta bitartekaritza zibilekora 71** aurreratu daiteke eta gai honetan autonomia erkidego aurreratuenak Kataluinia eta Euskadi dira.

- Lurralde administrazio ezberdinekin akordioen sinadura bultzatzen ari da, beraien esparru geografikoan bitartekaritza zerbitzuei laguntza emateko eta azpiegiturak ezartzeko, horrela arazoen ebazpenean tresna osagarriak posible egiteko, prozedura judizialen barnean.

2.- ETXEKO INDARKERIA ETA GENEROKO INDARKERIAREN KONTRAKO IKUSKARITZA

Ikuskaritzak gauzatutako jarduera nagusiak ondorengoak izan dira:

- Emakumearen kontrako indarkeriaren epaitegietako baliabide material eta giza baliabideen egoerari buruzko txostena.
- Emakumearekiko Indarkeriaren Estatu Ikuskaritzan parte hartzea.
- Gai honetan eskumenak dituzten organo judizialen jarduerari buruzko datu estatistikoen hedatzea.
- Organo judizialen titularren artean irizpide ezberdinak elkartrukatu eta komunikatzeko Foro birtuala mantentzea.
- Gai honetako Adituen Taldearekin lanak eta bilerak gauzatzea, Entzutegi Probintzialek eta Zinpeko Epaitegiek emaniko epaiak analizatzeko, epaitegi espainiarrek Lege Osoa nola aplikatu duten ikertzeko helburuarekin.
- Bi esparrutan lege jarduera bultzatzea:

  - Bi barruti judizial edo gehiago elkartzen dituzten emakumearekiko indarkerian espezializatutako epaitegien sorrera;
  - Epaitegi horien titulartasunera iristen direnentzat generoko indarkerian derrigorrezko formazioa.

3.- HIRITARREI ARRETA:

Urte honetako urtarrilaren hasieratik, hiritarrek 11.839 idatzi gauzatu dituzte erreklamazio, kexa eta iradokizun moduan.

Aurreko urteetako eta gaur egungo datuekin alderatuz, erreklamazioen zenbateko orokorrean beheranzko joera antzematen da.

Erreklamazioen %75ak auzitegi eta epaitegien funtzionamenduari erreferentzia egiten egiten dio; %13 ebazpen judizialarekin ados ez egoteagatik; %7 Justizia Administrazioatik kanpo dauden gaiak edo sailkaezinak dira eta gainontzeko %5 informazio eskaerak, hobetze iradokizunak edo eskerrak dira

jasotako arretagatik.

Auzitegi eta Epaitegien funtzionamenduari zuzenean eragiten dizkioten arrazoien artean, ia erdiak (%46) Erregistro Zibilei erreferentzia egiten diotela azpimarratu behar da.

Justiziaren aurrean Hiritarren Eskubideen Gutunaren irizpideak jarraituz, jasotako erreklamazioen gehiengoa ondorengo eskubideei dagokie:

- gizalegezko justizia bati, idatzien %44;
- justizia arin eta teknologikoki aurreratu bati, kexazko idatzien %43 bat biltzen duelarik; eta alde handiarekin,
- justizia garden baterako eskubideari, idatzien %8arekin.

Orokorrean, hiru eskubide hauek "Gutun"-aren edukiari eragiten dioten erreklamazioen %95 biltzen dute.

4.- KOMUNIKAZIOA

Bi ohar izan dira Kontseiluaren politikaz informatzen dutenak: gizartearekiko gardentasuna eta hurbiltasuna.

Horretarako Komunikazioa Esparrurako Plan bat onartu da, zeinaren azken helburua espainiarrek errealitate judiziala eta epaile eta magistratuek gauzatzen duten jardura positiboki baloratzea den.

JAG-en Komunikazio Bulegoak indartu egin dira eta aipatutako bulego horietan bekadunak barneratzeko aukera hainbat Prentsa Elkarterekin adostu da.

Kontseiluaren Web-aren diseinu lanak oso aurreratuta daude, proiektu hau bere DOKUMENTAZIO JUDIZIALEKO ZENTRUAK bultzatu eta garatu duelarik.

Ondorengo hilabetetan "Justizia, zure zerbitzura" leloa duen komunikazio plan bat gauzatuko da, hainbat jarduera barneratzen dituena.

Kontseiluak bere agintaldiko lehenengo urtean gauzatu duen jarduera guzti honek aurrekontu eskenatoki gisa 2009ko aurrekontuko helburuen berriro definitzea eduki zuela azpimarratu nahi dugu, bere gauzatzean praktika estuen erabilera bultzatuz.

Ildo berdina jarraituz, 2010rako aurrekontu proiektua Zerbitzu bakoitzak lortu behar dituen helburuen araberako aurrekontuaren zenbatekoa arrazoitzeko beharrizanetik gauzatu da, soilik handitzeko irizpidea alde batera utzita eta gaur egungo egoera ekonomikoak aholkatzen duen beharrezko estutasuna galdu gabe.

2009ko aurrekontuaren gauzatzea, aurreko irailaren 15an, %74koa zen.

Epe honetan guztira 41 kontratu eman dira, ia 7 milioi euroko zenbatekoa suposatu duena.

Horietatik, Karrera Judizialeko kideentzako aplikazio berri bat, Lege eta Jurisprudentziako datu basea, DOJZEN-ek garatu eta diseinatutakoa, jarduera judizialaren zerbitzura dagoen laguntza teknikorako tresna baliotsua, martxan jartzeak suposatu duen aurrekontu ahalegina azpimarratzea beharrezkoa da.

Justiziaren unea iritsi dela uste dugu. Kontseilua konsziente da hamarkadetan pilatutako hutsuneak ezin direla urte batzuetan moldatu, baina Justizia Administrazioari beharrezko baliabideak ematea ezinbestekoa da, hau XXI.mendean kokatzeko eta hiritarrekiko botere gardenago eta hurbilago batean bihurtzeko.